



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure produktuaren salmenta aurrera eramateko eta enpresak porrot ez egiteko, garbi dago, baliabide desberdinak beharko ditugula. Horien artean baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak izango ditugu. Hauetako batzuk, besteak baina garatuagoak izango ditugu, izan ere, enpresa bakoitza arlo bakoitzean espezializazio maila desberdina izango du.

Lehenik, baliabide fisikoen barruan, alkatxofa sortzeko behar dugun materiala sartzen da. Alde batetik, teknologiarik behar ez duen gauzak daude, alkatxofa esate baterako. Honek, kostu handiena suposatuko du, 15,99€-koa. Beste aldetik, dutxak teknologia duenez, bluetooth sistema bat erantsi behar zaio, musika mobiletik konektatu ahal izateko. Horrez gain, bozgoragailu on bat behar du, izan ere, dutxaren soinuarekin zaila izango da ondo entzutea.

Bigarrenik, baliabide intelektualak behar ditugu, gure produktua funtzionatu dezan. Dutzako alkatxofa egiten dutenez gain, beste teknikari batzuk beharko ditugu. Bluetooth sistema funtzionatu ahal izateko, teknologiaren inguruan ikasketak dituzten langileak kontratatuko ditugu. Azkenik, webgunea sortzea ere lan bat suposatuko du eta horretarako informatikan adituak diren pertsonak izango ditugu.

Hirugarrenik, produktuaren sorkuntzan eta teknologiaren funtzionamenduan lan egiten dutenez gain, beste hainbat giza-baliabide izango ditu gure enpresak. Alkatxofen eskaerak bezeroen etxetara iritsi ahal izateko, hainbat banatzaile kontratatu egingo ditugu eta hauek kamioietan banatuko dituzte produktuak. Espainiatik kanpoko eskaerak izanez gero berriz, abioiean bidaliko ditugu. Baita ere, enpresa txukun mantentzeko, garbitzaile batzuk izango ditugu, astero 3 egunetan lan egingo dutenak, langileen turnoa bukatu ondoren.

Laugarrenik, finantza-baliabideei dagokionez, hasieran enpresa sortzeko eta aurrera eramanez ahal izateko, bankuari mailegu bat eskatu egingo diogu eta denbora aurrera pasa ahala irabaziekin diru hori bueltatu egingo dugu. Horrez gain, mailegua handiegia ez izateko, langile bakoitzak bere aportazioa egin beharko du eta ondoren beraien soldatarekin itzuliko ziaie. Azkenik, enpresak aurretik irabazitako diruak ere lagundu egingo gaitu.

Beraz, garrantzitsua izango da arlo guztietan orden bat eramatea enpresa aurrera jarraitu ahal izateko, izan ere, aspektu guztiak garrantzitsuak izango dira, bestela arazoak sortuko dia eta honek gastuak suposatuko ditu.